

BARNE ARAUDIA

Instalazio hau erabiltzaileen kirol eta aisialdi-jarduerarako da, baita erabiltzaileek igeri egiten ikasteko eta igeriketan trebatzeko ere. Era berean, Federazioek, kirol elkarteek eta kirol klubek erabili ahal izango dituzte beren jarduera zehatzak garatu ahal izateko.

Igerilekua nagusiki kirol eta gorputz-jarduerak garatzeko instalazioak da.

udala ez da igeri egiten behar bezala jakin gabe edo beharreko neurriak hartu gabe igerilekua erabiltzen duten erabiltzaileei gerta dakizkiekeen ezbeharren erantzule. Honenbestez, debekatuta dute sarrera 8 urtetik beherakoek (udalak berak antolatutako programa nahiz ikastaroetan eta klubentzako entrenamenduetan izan ezik) adinez nagusi den pertsona batez lagundurik ez badaude.

Udalak programatuko du eta toki ikusgarri batean jarriko du igerilekuaren kaleen banaketa, beti ere bertan garatzen diren jardueren arabera: Bainu librea, ikastaroak eta jarduerak, klubentzako programak eta egoki irizten diren beste jarduerak.

Igerilekua zabalik dagoen artean beti egongo da ur-sorosle bat, horretarako titulua duen soroslea, alegia.

Izaera orokor batez, honako arautegi hau zehazten da igerilekua erabiltzeko:

1. Igerilekuaren kale guztiak kontuan harturik, **gehienez 100 pertsona** (pertsona bat metro karratuko) egongo dira igerilekuan. Ahalik eta pertsona gehienak erabili ahal izan dezaten, jarduerak ordubete iraungo du gehienez (instalazioa oso beteta dagoenean). Arau hau ez da aplikatuko igeriketan entrenatzeko kasuetan eta lehiaketa ofizialen kasuetan.
2. Igerilekuan sarrera izateko eta uretara sartu aurretik dutxa bat hartu behar da.
3. Nahitaez erabiliko dira bainujantzia eta bainu-txanoa.
4. Gomendagarria da txankletak edo bainu-zapatilak erabiltzea, baita norberaren higiena zaintzea eta erabiltzen diren elementuak garbitzea.
5. Guztiz debekatuta dago bainu esparruan kaleko arroparekin eta oinetakoekin sartzea. Ezinbestean horrelakorik egin behar bada, igerilekuaren inguruetan sartzen denak babesgarriak jarriko ditu bere oinetakoetan.
6. Zeharo debekatuta dago instalazio honetan, aldageletan barne, jatea eta erretzea.

7. Une oro errespetatuko dira soroslearen esanak eta aginduak. Igeriketa ikastaroetan zehar begiralea edo entrenatzailea izango da bere taldearen arduraduna.
8. Azaleko gaitz kutsakorren bat duten pertsonak guztiz debekatuta dute bainu-eremurako sarrera. Zalantzarik izanez gero soroslearekin kontsultatu behar da. Zauri edo ebaki sakonak behar bezala itxita ez daudenean edo ehun azpiepidermikoa agerian dagoenean igerilekua ez erabiltzea gomendatzen da, zauri horiek zornatu egin daitezkeelako.
9. Instalazioetara animaliak sartzea debekatuta dago.
10. Instalazio honetan bereziki errespetatu behar dira beste erabiltzaileak. Ezin da igerilekuaren inguruan korrika egin, jolas arriskutsuak egin, elkarri heldu eta kortxo-ilaretan eseri. Igerilekuaren kaleak hobeto aprobetxatzearen, igerian luzeran egingo da eta kaleen eskuinaldean, ez dira kaleak zeharka igaroko, hau da, ez da igerian igerilekuaren zabaleran egingo. Eskailerak dira igerilekuan sartzeko eta igerilekutik irteteko leku naturalak. Uretan salto batean murgilduz gero, soilik irteera-podiumetatik egingo da.
11. Igogailuak eskainiko zaizkie elbarri diren pertsonari igerilekua erabili ahal izan dezaten. Ahal den neurrian saihestu egingo dira minusbalioak dituzten pertsonak instalazio hauek erabili ahal izateko eragozpenak eragiten dituzten ekipamendu edo eraikuntza elementu-mota guztiak.
12. Kirol praktikatzeko materialen bat eskatzen duten pertsonak sorosleari egingo diote eskaera, eta erabili ondoren berari itzuliko diote.
13. Debekatuta dago hegatsekin eta beste bainulariei min egin diezaieketen elementuekin igeri egitea. Debeku horretatik salbuetsita daude kirol entrenamenduetan erabiltzen diren elementuen erabilera. Bestalde, soroslearen arabera beste erabiltzaileen kirol jarduera eragozten ez den kasuetan, baimendu egingo da elementu horiek erabilera.
14. Abonatuek une oro gutxienez hiru (3) kale izango dituzte erabiltzeko eta gozatzeko.